Artzape
getariarron topagunea

2019ko azaroa

197. zbk

PARRILAREN ATZEKO JAKINTZA
SOLE GARMENDIA, TRADIZIOAREN PARTE

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

barne diseinua interiorismo
Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

GIROA TABERNA
·Plater konbinatuak
·Bokatak
·Pintxo goxoen aukera
Kale Nagusia, 24 - GETARIA - Tel.:943 140 800

portu
nagusia 12
20808 getaria
943140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

K
KAIA KAIPE
JATETXEA RESTAURANTE
Arnao generala, 4 20808 Getaria // 943 14 05 00 // www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

EDITORIALA ETA AURKIBIDEA

7 Ize ez, ta berriketan: Angelita Idiakez

22 Zer jan, hura izan: mahats eta onddo risottoa

4-5	Salberak Itsaskabrari
5-6	Iritzia: Joxi Erauskin
7	Ize ez, ta berriketan
8-9	Klik batean
10-12	Erreportajea: Itsas Gastronomia Elkartea
13-15	Elkarrizketa: Sole Garmendia
16-17	Argazki erreportajea: urriko ekitaldiak
18	Elan Euskadi
19	Historiaren katebegiak
20	Harritarten txutxupeka
21	Bi hitzetan
22	Zer jan, hura izan
24	Komikia
25	Getariako hitza
26	Agenda

2019ko azaroa 197. zbk

Artzape
getariarron topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Iure Eizagirre eta Intza Gurrutxaga.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Jon Ander de la Hoz, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Joseba Fuentes.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Beñat Gereka, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Garbiñe Ibarbia, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Getariako Udal Liburutegia, Goiatz Lazkano, Iturzaeta Herri Eskola, Jon Ander de la Hoz, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes eta Xabier Isasti.
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

ZIGOR SAIZAR

Mende erdi bat...

"*...mende oso bat iraganen dut zure ondoan koblaka*"

(*Sorterriko koblak*, J. Sarrionandia/M. Laboak abestua)

Biak sorterrian, biak kale berean jaioak, katuen kalean eta mende erdi oso bat herrian bertan nomada, migrante, kale batetik bestera: San Roke, Iribarrena, Elkano, Sahatsaga... Sorterria etxe, elkarrenganako maitepoza aterpe.

60. hamarkadaren bukaera, hippyen hamarkada, iraultzak han eta hemen, larrosena, sexuala, kulturala... *egin amodioa eta ez gerra* esapide ospetsuaren garaiak.

Patxi zaharraren azken egunak —ez frankismoarenak, horrek jarraitzen dik oraindik—; grisen aurrean korrika saioak manifestazioetan; euskararen-langileen eskubideen-ikastolen-... alde pankartaren atzean han eta hemen. Herriko ikastola sortzeko tabernak, tonbolak... antolatzen elkarrekin orduak eta orduak.

Umeei afaltzen eman eta hauek lotaratu ondoren, gau-eskoletan euskaraz alfabetatzera, eskuan bana koaderno hartuta... "Orain hatxeak? Eta noiz idazten den ese eta noiz zeta? 'Urrutizkina', 'orlegea', zeñek asmatu dizkik hitz hauek?".

Bikote harreman bat duela 50 urte. Ordutik egundaino pertsonen arteko harremanak aldatzen joan dituk. Garai hartan getariar bat gehienez herriko jendearekin eta Zarautz, Zumaia eta Oriokoekin harremantzen huen. Alde batetik bestera mugitzeko kotxea izatea luxua huen. Oinez, bizikletaz edo autobus lanak egiten zizkian kamionetan joaten hituen herri batetik bestera, bertakoak ezagutu eta haiekin ligatzera. Gaur egun bezala, orduerdi batean Donostiara, edo ordubetean Bilbo, Gasteiz, Baiona edo Iruñeara, edo hegazkinez London, New York edo Istanbulera joatea, pentsaezina. Eskutitzak letra etzanaz eta dotorez: bi, hiru eta lau orrikoak. Norberaren buzoian postariak eskutitza botatzerako bizpahiru aste.

Orain gazteok zenbat pertsona ezagutzen dituzue, sare sozialen bidez, unibertsitatean, Erasmusetan, lantoki ezberdinetan, aisialdian, bidaietan...?

Egun dena dek motza, inork ez dizkik 15 hitz baino luzeago diren txapak idazten, eta are gutxiago irakurtzen. Txioak, Instagrameko mezuak, Snapchatekoak... elkarrekin hitz egiten dugunean ere non geratu hituen elkarrizketa sakon eta gozagarriak? Egun, bi esaldi segidan esanez gero "hoa harira" esaten ditek azkar, edo "benga txapas, *al grano*". Ez dek harritzekoa, beraz, pertsonen arteko harremanak ere laburrak izatea, harremanen oinarrian komunikazioa baitzegok: elkar ulertzeko, elkarri sentimenduak adierazteko, elkarrekin adostasunak bilatzeko komunikatu beharra diagu. Eta komunikazioa laburtzen denean, isiltasuna. Orduan akabo. Bukatu dek harremana.

50 urtean elkarrekin bidea egin duten bikoteak miresten dizkiat, bide horretan zenbat eta zenbat hitz egin behar izan duten, atera zaizkien bidegurutzeen aurrean erabakiak elkarrekin hartzeko, erortzean elkarri altxatzen laguntzeko, nekeak jota egon arren, besotik hartu eta aurrera egiteko. Esan gabeko hitz asko ere bai tartean, keinu bidez edota besarkada estu batekin adierazitakoak.

50 urtetan elkarrekin esnatu ez arren, goizetan esnatu eta hiru intxaur, ogi txigortua eta kafesne bero-beroa mahai gainean. Bero-beroa egon dadila, mesedez. Zuen bihotzak bezala.

JON ANDER DE LA HOZ

50? Lehenbizikoak!

Hireak irakurtzen jarri, eta bizi ez genian garai baten malenkonia piztu zaidak barrenean, Zigor. Ederrak

dituk idatzi dituan horiek guztiak, noski, baina beste kupeleko sagardoa dek ea letra horiek guztiak egia izan diren inoiz. Alegia, nire gurasoak ere biak elkarrengandik metro gutxira jaioak dituk, ados, baina nire kuadrillan salbuespen gaituk bi gurasoak getariarrak dizkiagunok; nire kuadrillan bazeudek Donostia, Mutriku, Ibarra, Goierri, eta baita Galizia sorterri izan ziatean gurasorik.

Halere, heuk aipatu duan harremanen bat-batekotasuna hartuko diat oraingoan iturri. Egia dek abiada ikaragarrian bizi garela orain. Edo, hobe esanda, hori uste diagula. Izan ere, iraganari begira jarri, eta 50 urte atzera geratzea ez zaidak bidezkoa iruditzen. Aipatzen dek nola duela 50 urte luxua zen auto bat izatea; askoz gertuagokoak zirela harremanak. Gure begiradatik, akaso, ez baitizkiagu oraindik 50 urte (ez, hik ere ez... oraindik), baina gustura galdetuko nikek adin horretan heldu zirenei ea zein pentsamendu zuten bizi zuten iraultza teknologiko partikularraz; telebistak eta beste, badakik.

Bistakoa dek orain unean-unekoak patxada eta pazientzia jaten digula. Niri bai, bederen. Baina ez ote ziaten mundua azkartzen ari zela pentsatzen orain mende erdi Neil Armstrong ilargia zapaltzen ikusi zuten haiek? Lehen igogailu modernoetan ibiltzen hasi ziren haiek? Txirritak ere kantagai izan zizkian urte gutxiren barruan izandako aurrerapenak; 1867an ikusi zian lehen ferrokarrila, eta 1931an, honela bota zian, elektrikaren adelantuak zirela eta:

Modu orretan, jarri zubenak
Norteko ferrokarrila
jakinduriya haundiya zuben
entendimentu abilla;
gizonik eziñ liteke asi
zaldi obiaren billa
goizian erten Irun'dik eta
illuntzerako Madrilla.

Pantailari begira bizi gaituk, eta hori arazo bilakatu dek. Ez dek arrazoi faltarik. Baina lehen ere kontakturik ezak sortzen zian harreman hausturarik. Tamainan erabiliz gero, balekoak dituk halakoak; pentsa, ordenagailurik ez bagenian, ezingo genian gure erlazio epistolar bitxi hau mantendu... eta horrek ere berotzen gaitik, hilabetean behin soilik badek ere.

JOXI ERAUSKIN

Muskerraren ibilbidea

Muskerraren bidea Asteasuko herrian kokaturik dagoen ibilbidea da. Bernardo Atxagak irudikatutako Obaba eta Asteasu erreala bateratzen dituen proiektua, hain zuzen. *Obabakoak* eleberrian oinarritutako ibiltokian, bi kilometrotan basoan zehar, Atxagak irudizko Euskal Herria deskribatzen du, bertan ipinita dauden panelen bidez azalpenak emanez eta liburuaren laburpen bat eginez. Gida literario bat da Asteasun zehar egin daitekeen ibilbidea. Obaba, irudizko tokia, Atxagaren literatura imaginarioan gordeleku garrantzitsua izan da. Fantasiak eta errealitateak etengabe bat egiten du asmatutako herri honetan. Bertan daude kokatuta *Sugeak txoriari begiratzen dionean*, *Bi anai* eta, bereziki, *Obabakoak*, hizkuntza gehienetara itzulia izan den euskal obra.

Liburua argitaratu eta berehala jaso zituen Atxagak laudorioak. Esaterako, *The New York Times* egunkariak berehala nabarmendu zuen eleberria, azken urteetan argitaratutako libururik originalena zela aipatuz. Estatu Batuetako Laura Miller argitaletxe entzutetsuak ere, ikertzaile talde batekin, garai guztietako 100 literatura unibertso garrantzitsuenetarikoen artean sartu du *Obabakoak*. Beraz, 26 kontakizunez osaturiko obra hau euskal literaturako erreferente bihurtu da.

Halere, irudizko leku batean herri baten kulturarekin, ondarearekin, ohiturekin uztarturiko sorkuntzak egin litezke, eta horren atzean beti egongo da herri baten antropologia, geografia, historia, mundu ikuskera... Errealitate jakin batetik sortutako mundu imaginario hori izan bailiteke, baita ere, herri baten arima. Herri zahar honek gizateriaren egunsentitik ibilbide luzea egina du, bere oinarrizko esentziari eutsiz. Baina bere jatorriaz hainbat zalantza azaldu izan dituzte adituek historian zehar.

Azkenaldian asko entzun izan ohi da Britainia Handiko, Eskoziako eta Irlandako jatorriaz. Hainbat adituk diotenez, herrialde horietako biztanleen DNAren ehuneko 70ak, gutxi gorabehera, euskaldunokin zerikusia du; alegia, euskal jatorria izan lezake. Hori argudiatzeko orain 14.500 urte gertaturiko izoztea darabilte. Antza denez, Europa osoan izotzaren mantua hedatu zenean, piriniar atlantikoko eta gaur egungo Euskal Herriko alde hauetan bakarrik mantendu zen klima epela, beraz, orduko gizakiek hemengo kobazuloetan bilatu zuten aterpea edo bizilekua.

Gerora, ordea, izotzak urtuz joan ziren heinean, berriro gizakia pixkanaka Europan zehar barreiatuz joan zen, eta batez ere, Atlantikoko kostan barrena gorantz jo zuen: Frantziatik, Britainia Handira, Eskozia, Irlanda..., Gertakizun horretan oinarritzen dira adituak DNAren zati handi bat hemengoa dutela esateko. Noski, froga zientifikoak azaltzen dituzte hori frogatzeko.

Bestalde, hemendik gertu nahiz urrunago, hemengo arrastoak toki ezberdinetan agertu izan ohi direla diote adituek; eta ez euskaldun adituek harro punttuz esan ohi dutelako, kanpoko adituek eta zientzilariek hori aurkitu eta esaten dutelako baizik, inongo interesik eduki gabe. Esaterako, aipatutako DNAren azterketa genetikoak Forster eta Stephen Oppenheimerrek egin dituzte, eta azterketa linguistikoak, berriz, Theo Vennemanek.

Esaterako, Europa osoan agertzen omen dira euskal hitzen antzekoak, batez ere, erreka, mendi, zuhaitz... eta horrelakoak izendatzeko erabiltzen diren hitzetan. Vennemanek dioenez, izoztearen ondoren Europa populatzean utzitako arrastoak izan litezke. Gainera, garai horretako artearen aurkikuntzak ere testigantza ezin hobeak dira DNAren eta hizkuntzaren teoriak indartzeko. Hain zuzen ere, kobazuloetan garai berdinean bizi izan ziren gizaki Cromagnon haiek utzitako arrastoak bat egiten dute, hiru adarreko ikerketa horiei nolabaiteko sinestasuna emanez.

Gizateriaren horrelako ibilbideak historiaren hastapenetik datoz. Ibilbide horiek sortu dute jakinduria, kultura, artea eta mundu ikuskera berezi bat, eta nahiz eta askotan pentsatzen dugun bakarrak eta bereziak garela, guk uste baino gehiago gaude gizakiak bata bestearekin lotuta, erlazionatuta.

Bestalde, horren harira eta egunsentiaren hastapenetatik ia gaurdaino mende batzutan jauzi handi bat eginez, Estatu Batuetako Chicago inguruan ere aurkikuntzak egin dituzte, eta oraindik erabat frogatu ez duten arren, itxura guztien arabera, euskaldunen arrastoak izan litezke han aurkitutako tresneria eta hondakinak. Pentsatzen da euskal arrantzaleak Ternuan ibili ziren garaian aurrerago egingo zutela agian, eta beste ikerketa bat irekitzen du horrek, datozen urteetan zehar argitu nahi izango dena. Aurkikuntzak sortzen duen fantasiak eta frogek azaltzen duten errealitateak ez dute beti bat egiten, ordea, muskerraren bidean bezala.

ZAINTZA EGUNAK

Azaroaren 11tik 15era.

FULDAIN FARMAZIA

UXOA IRIGOIEN

Angelita Idiakez

Angelita Idiakez 1930eko abuztuaren 1ean jaio zan Getayan. Txiki-txikitatik familiako tabernan hasi zan lanian, bere aiton-amonak 1880 urte inguruan sortutako Bartolo taberna, majiñat arrantzale ta antxo fabrikako langilentzako atseden txokua. 27 urtekin ezkondu ta lau seme-alaba izan zitun. Guk Elkano kaleko dendako mostradorian ezautu genun, hogei durokuakin goxokiyak erostea jute giñanian igandetan. Elkarrizketa amaitu ta berehala, bilobak ere bixitan etorri zaxkio. Maitagarria da, guztiz, emakume hau!

Bartolo tabernan mostradore atzian zerbitzari txiki-txikitatik...

Bai, halaxe hasi nitzan aita ta amai laguntzen. Garai hartan antxo lanian jende asko ibiltze zan, antxuai burua kentzen. Zumaiarrak ta re etortze zian. Negu garaian, euri ta hotza ite zunian danak gure taberna etortze zian salda berua o baxoerdiya hartzea, perra haundi bat pagauta. Ni hantxe ibiltze nitzan basuak-ta garbitzen.

Tabernan bai, baina eskolare jute zinan, ez?

Bai, bai. Aurrena Getayan ta geo Zauzko mixerikordiyan, Santa Anan. 13 urte t'erdi arte jun nitzan. *Madre superiorra*k esan tzin karrera in behar nula, bixkorra nitzan eskolan, baino nere eskola ibilbidia hantxe bukau zan. Garai baten eskola ta taberna, biyeta ibili nitzan. Zenbat eta geyo lan in, geo ta gustoao, halaxe izate zan!

Tabernetan poteuan jendia ibiltze al tzan? Emakumeik?

Emakumiak? Gizonezkuak bakarrik ibiltze zian, akaso nobiyotan zeuenen batzuk kafesnia hartzea, baino gainontzekuan, dana gizona. Betiko jendia etortze zan, leno etzan oain bezela taberna batetik bestea moitzen. Taberna berdinian goizian, arratsaldian ta gauian. Etxekuak bezelaxe sentitze zian, sentiarazten genitun, goxotasuna emanez.

Asteburutan Kale Nagusiya borborka eotea, tabernak jendez lepo...

Garai hayetan taberna geyenak Elkano kalian zeuen; "*calle mayor, calle muerta*", halaxe esate genun. Kale Nagusiyan antxo fabrikak zeuen ta...

Tabernan jarraitu al tzenun beti?

Ez, 1955ian taberna itxi zan. 57yan ezkondu in nitzan. Gizonak-eta panadeya zekaen ta etxiak in ber tzituenez, panadeya lekuz aldau berra zekaen. Panadero batzuk fusionau ta Ogilan sortu zuen, Oriyon. Geo gure denda txikiyan hango ogiya saltze nun, ta baita yogur, periodiko, goxoki tabar e. 65 urtekin jubilau nitzan.

Gaur egungo okindegiyak ta lenokuak diferentiak al dia?

Oain, ogiya saltzen dan lekutan kafetei haundiya eukitzeue, asko aldau da!

Jubilau ta geore etziñan geldik eongo...

Ez hoixe! Gizonak baratza hartu zun ta hantxe ibiltze nitzan. Ni kaleumia izanda, hasieran ikasi beharra euki nun... Baratza eukitzia gauza ederra da! Ta etxian e garbiu ta garbiu, brillua atea arte!

Ze gustoa eon nayen berriketan Angelitakin bere etxe goxuan, Mari Karmen alabakin batea. 89 urte ta a ze bitalidadia dakana! Segi holaxe urte askuan, Angelita!

Datorren urteko udal tasak behin-behinean onartu dira

Getariako Udalak egindako azken udalbatzarrean onartu dira, behin-behinean, 2020rako ordenantza fiskalen aldaketak. EH Bilduren proposamena aurrera aterata, %1,5 igoko dira zerga guztiak.

Tasei lotuta, etxebizitza hutsei eta bigarren eskuko hutsei %50eko gainkarga ezarriko zaie. Orain arte %25ekoa zuten, eta EAJ kritiko agertu da igoerarekin; aldaketa aplikatu aurretik lehendik zegoenaren ebaluazioa egitea eskatu du. Horrez gain, Udalak 400 euro kobratuko ditu obra handien espedienteak izapidetzeagatik.

Bestalde, kreditu aldaketa onartu du Udalak hilabete honetan. Sahatsagako etxebizitza berriak eta Herrerieta lotuko dituen bidea atzeratu egingo da eta horrek 50.000 euro beste zenbait helburutan inbertitzea ahalbidetu du. Horrez gain, beste poltsa batzuetan aurreikusitako 35.000 euro asmo berrietara bideratuko dira.

Kiroldegi ondoan egiten ari diren padel pistarako erabiliko dute diru zati bat.

Behobia-Donostia lasterketarako autobusa jarri dute

Getariarrak kirolzaleak direnik, ez da zalantzarik. Aurtengoan ere hamarnaka herritar izango dira azaroaren 10ean egingo den Behobia-Donostia lasterketaren irteera puntuan. Horregatik, azken urteetan bezala, bertaratzeko autobusa antolatu du Sahatsaga kiroldegiak.

Garraioa herritik abiatzeko lehen baldintza 20 pertsonako taldea osatzea da, izan ere, aurreko urteetan oso jende gutxik eman du izena autobusean. Behar adina jende batuko balitz, 08:45ean abiatuko litzateke autobus geltokitik; bestela, Zarauztik irtengo litzateke.

Izen-ematea azaroaren 7a baino lehen egin behar da kiroldegian, dela bertaratuta, 943 140 432 telefono zenbakira deituta edo kirolgune@hotmail.com posta elektronikora idatzita. Apuntatzeak 12€ balio du.

Behobia-Donostia lasterketa. /Arg.: Cano Fotos.

Albiste gehiago **www.artzape.eus** webgunean...

Balenciagaren inguruko biltzarra, 2020an

Cristobal Balenciaga jostuna jaio zeneko 125. urteurrena beteko da 2020ko urtarrilean. Hori aintzat hartuta, Cristobal Balenciagari buruzko Nazioarteko I. Biltzarra egingo dutela iragarri dute Balenciaga Fundazioak eta Cristobal Balenciaga Museoak. Datorren urteko urriaren 1ean eta 2an izango da.

Biltzarra akademikoa izango da, jostunaren edo haren lanen inguruko proiektuak eta ikerketa proposamenak aurkeztuko dituena. Ikuspegi askokoak izan daitezke, modaren historiaren arlokoak edo beste arlo batzuetatik etorriak, hala nola, ekonomikoa, legezkoa, soziologikoa eta arteen mundukoa.

Proposamenak aurkezteko epea zabalik dago abenduaren 15era arte. Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez zein frantsesez bidal daitezke congress@fbalenciaga.com helbide elektronikora.



Cristobal Balenciaga jostuna. /Arg.: Cristobal Balenciaga Museoa

Lourdes Salsamendi da Udal Elkarteko lehendakaria

Lourdes Salsamendi Orioko EAJko zinegotziak hartu du hilabete honetan Urola Kostako Udal Elkarteko lehendakari kargua. Batzar Nagusian gehiengoa lortu zuen 37 botorekin eta bigarren izan zen Mikel Goenaga Zarauzko EH Bilduko zinegotzia, 35 botorekin. Lehendakariorde alderdi jeltzaleko Oier Korta zumaiarra izango da.

Lanean hasi denaren seinale, Udal Elkarteak 2020an eskualdean Euskaraldia dinamizatzeko kontratatutako hiru pertsonak aurkeztu ditu. Euskaltzaleen Topagunearekin euskararen normalizazioa sustatzeko sinatutako lankidetza-hitzarmenak ahalbidetu ditu kontratazioak.

Sara Saizar zumaiarrak bultzatuko du Euskaraldia Getarian. Aurkezpenean azaldu dutenez, berarekin ariko dira erakundeak, herritarrak, elkarteak eta enpresak "elkarlanean".

Sara Saizar, ezkerrean, Euskaraldiko Getariako dinamizatzailea.

...eta Facebooken.

Jatetxe bakoitzak parrilaren inguruko kontaera bat zuela ohartuta sortu zuten Getariako Itsas Gastronomiaren Elkartea. Esperientziak elkarbanatzen hasitakoan konturatu ziren parrilak "herri bat eta horren jakintza" dituela atzetik .

Testua
INTZA GURRUTXAGA

Itsas Gastronomia Elkartea

PARRILAREN INGURUKO KONTAKIZUN BATERATUA SORTZEN

Parrilak Getarian duen presentziaz ohartzeko nahikoa da Kale Nagusitik jaitsi eta moila arteko bidea egitea. Urtean ia 365 egunez martxan daude eta bezeroak ez ezik, ikusle ugari erakartzen dituzte. Bestela, galdetu herriko jatetxeetako parrilariei ea uda honetan zenbat argazki egin dizkieten. Zuek ere ez duzue ukatuko parrilan egiten ari diren erreboiloa hartu eta etxera eramateko gogorik ez duzuenik inoiz sentitu.

Getaria ondare ugari dituen herria da, eta horien artean, azkenaldian oihartzun handia izaten ari da parrila. Hala ere, zer dakigu parrilaren inguruan? Noiz, nola, nork, zergatik sortu zuen? Galdera horiei guztiei erantzuteko jakin-mina piztu eta duela zenbait hilabete, getariar batzuk lanean hasi ziren. Hala, herriko hainbat pertsona bildu eta parrilaren inguruko kontakizun bateratu bat osatzeari ekin zioten.

Elkarretaratze haietatik Getariako Itsas Gastronomiaren Elkartea sortu da. Profil desberdinetako jendea dago bertan, besteak beste, irakasleak, sukaldariak eta historialariak. Beraiek adierazi bezala, elkartea "irekia da eta kide berriak parte hartzera gonbidatuta daude". Elkartean daude San Sebastian Gastronomika kongresuan parte hartu zuten Astillero jatetxeko Gorka Lazkano, Balearriko Markel Iribar, Kaia-Kaipeko Igor Arregi, Elkanoko Aitor Arregi, Txokoko Enrique Fleischmann, Xabier Alberdi historialaria eta Xabier Aldalur irakasle eta Azkue hoteleko zuzendaria. Kide dira, halaber, Beñat Gereka, Maialen Gereka, Nerea Aristoy eta Pello Iribar.

Azken hilabeteetan, herrian ez ezik, herritik kanpo ere presentzia handia izan du elkarteak. Horren harira, Beñat Gerekarekin egoteko aukera izan dugu eta sorreraren arrazoiak zein asmoak adierazi dizkigu. "Orain arte, jatetxe bakoitzak, bere ezagutzaren arabera, parrilaren inguruko kontaera bat osatzen eta azaltzen zuen. Konturatu ginen kontakizun bateratu bat falta zela, eta hori sortzeko asmoarekin lanean hasi ginen", adierazi du Gerekak. Berehala konturatu ziren parrila icebergaren punta besterik ez zela, eta horren atzean herri oso bat dagoela, besteak beste, arrantzaleak, sare-konpontzaileak, txibizaleak edota arrain-saltzaileak, "herri bat ez ezik, herri baten jakintza guztia".

Belaunaldiz belaunaldi jakintza hori transmititu izan da, baina egun, badirudi, katea puskatzen ari dela. "Arrantzaleena edota sare-konpontzaileena bezalako lanbidetan, erreleboa emateko jende gaztea falta da". Hori horrela, jakintza galtzeko arriskua dagoela ikusirik, Getariako Itsas Gastronomiaren Elkarteak ezagutza hori guztia bildu eta jaso nahi du. Horretarako, dagoeneko, herriko hainbat arrantzale eta sare-konpontzaileri elkarrizketak egin dizkiete. Lanbide horiek balioan jarri eta urte hauetan zehar egindako lana ezagutzera eman nahi dute. Etorkizunerako beste hainbat proiektu gauzatzeko asmoa ere badute, "baina oraindik ez dago ezer zehaztuta".

Elkano lehenengo parrilaria?

Parrilaren inguruko informazio bila ari zirela, Elkanoren garaiko dokumentu batzuekin egin zuten topo elkarteko kideek. Horien arabera, Elkanok hiru parrila utzi zituen oinordetzan bere testamentuan. Hortaz, "esan dezakegu dokumentatuta dagoen lehenengo parrilaria Juan Sebastian Elkano dela". Gainera, aurten Elkanoren mundu biraren 500. urteurrena dela aprobetxatuz, parrilaren eta Elkanoren arteko lotura hori egitea interesgarria iruditu zaie.

Parrila, beraz, duela 500 urte jada sortuta zegoen, eta gaur egun arte iraun du. Garai hartako jakintza transmitituz eta garatuz egungo parriletara iritsi gara. Elkartekoek, nolabait, parrilaren lehorreratzea irudikatzen dute: "Parrilak hainbat itsasontzitan erabiltzen ziren, esaterako, atunak arrantzatzera joaten zirenean, parrilak eramaten zituzten. Ondoren, parrila horiek lehorreratu egiten ziren". Parrilak itsasontzietatik atera eta herriko bodega zaharretan jartzen hasi ziren; "Txoko jatetxea, adibidez, lehen bodega bat zen". Horrela, bodegatan parrilak jartzen hasi ziren eta arrantzaleak, eguneko lana eginda etxera itzultzen zirenean, arrantzatutako arrainak bertan prestatzen zituzten. "Pixkanaka, bodega horietatik abiatuta, gaur egungo jatetxeetara iritsi gara", adierazi du Gerekak.

San Sebastian Gastronomika

Jakintzaren zabalkunde horretan, pasa den urriaren 8an eman dute lehenengo pausoa. Izan ere, Getariako Itsas Gastronomia Elkartea San Sebastian Gastronomikan izan da. Elkanoren mundu biraren 500. urteurrena izanik, Donostian egin ohi duten gastronomia kongresuaren aurtengo edizioa gertaera hartan girotu da. Gastronomikak Getariako elkartea egiten ari den lanaren berri izan du eta bertan parte hartzera gonbidatu du. "Orain arte aztertutakoa azaltzeko proposatu digute", adierazi du Gerekak.

Gonbitari heldu eta Getariako Itsas Gastronomia Elkarteko zazpi kide hitzaldia ematera joan dira. Bertan, parrilaren sorkuntzaren eta garapenaren inguruan hitz egin dute.

Xabier Alberdi historialariak eta Xabier Aldalur irakasleak parrilaren garapena ikuspegi historikotik landu dute, honek izandako bilakaera azaldu eta lehen aipatutako parrilaren lehorreratzearen berri emanez. Ondoren, Gorka Lazkanok, Markel Iribarrek, Aitor eta Igor Arregik eta Enrique Fleischmannek beraien jatetxeetako ordezkari gisa hitz eginez, euren jatetxeen sorreraren eta ondoretzan jasotako hainbat jakintzen inguruan mintzatu dira.

Hitzaldian, Aldalurrek adierazi du elkartearen helburuetako bat dela orain arte transmititutako eta egun garatzen ari den jakintza ez galtzea. Parrila Getariaren elementu errepresentatzailea da eta itsasotik jasotako jakintza guztia biltzen du. Gainera, "parrilaren bizirautea herriaren esku dago", azaldu du.

Kalean ikustea hain ohikoa ez bada ere, parrilaren garapenean emakumeek ere jarri dute alea. Sukaldaritza kongresuan aipatu dute, hain zuzen ere, haietako baten izena: Sole Garmendia.

SOLE GARMENDIA

"PARRILARIK GABE EZ LITZATEKE HAINBESTE LAN EGINGO GETARIAN"

Oporretatik bueltatu berri harrapatu arren, Soledad Garmendiak ARTZAPErekin solasean aritzeko tartetxoa hartu du. 77 urte ditu eta bizitzeko gogoz zein energiaz beteta nabaritu dugu. Emakume langilea bezain indartsua da. Bizitzan lan asko egitea tokatu zaio, tabernakoa ez ezik, bi alabak bakarrik hazi behar izan ditu. Gizona eta biak izan ziren Politena jatetxearen sortzaileak; Kale Nagusiko garaje bat eraberritu eta taberna bihurtu zuten. Ordutik, bertan aritu zen lanean, barran, sukaldean, eta parrilan ere bai.

TESTUA eta ARGAZKIAK
INTZA GURRUTXAGA

Lanbidez parrilaria izandako lehen emakume bezala izendatu genezake. Hemen inguruan, behintzat, lehena ez bada ere, lehenetarikoa izan da. Parrilariena gizonezkoz betetako lanbidea izan da betidanik, eta gaur egun ere gehiengoa dira. Guk ez dugu aukera galdu nahi izan eta Garmendiarekin lanbide horren inguruan hitz egin dugu.

Nondik zatoz zu?
Ni Azpeitian jaioa naiz, baina 19 urte nituenetik Getarian bizi naiz. Hona etorri eta San Prudentzion hasi nintzen lanean; sei urte egin nituen bertan. Nire gizona izandakoa hangoa zen, maitemindu eta ezkondu egin ginen. Ondoren, zerbait egin nahi eta Getarian lokal bat genuenez, taberna bat jartzea erabaki genuen. Hala, bion artean, Politena taberna jarri genuen martxan.

Noiz ireki zenuten Politena?
Duela 51 urte, 1968an. Hasieran, pare bat urtez, taberna bezala aritu ginen lanean. Elkarte gastronomiko baten antzera lan egiten genuen: herritarrak beren janariarekin etortzen ziren, eta guk, soilik, edaria ematen genien. Bi urte horietan, ordea, kanpoko jendea etortzen zenean, herritarrak jaten ari zirena ikusita, beraiek ere hori nahi zutela esaten ziguten. Guk, baina, ez genuen halako eskaintzarik egiten.

Parrila ere hasieratik jarri al zenuten?
Nahiko hasieratik, bai. Gizonak sukaldean bazekien, baina Getarian parrilak zuen arrakasta gehien. Esango nuke lehenengo parrila Txokok jarri zuela eta ondoren, orain Getaka taberna dagoen lekuan zegoen elkarte gastronomiko batek jarri zuen. Nire gizonak hasieratik sentitu izan zuen inbidia sanoa haiekiko eta azkenean jartzea erabaki genuen. Honekin ere gauza bera gertatu zen: hasieran herritarrek arraina ekarri eta parrilan egiten zuten, guk, soilik, parrila jartzen genuen. Kanpoko jendea, ordea, parrilako janari eske hasi zen, eta azkenean, eskaintzen hasi ginen.

Garmendia jatetxeko terrazan. /Arg.: Sole Garmendia.

"Txapelketa batera joateko esan zidaten. Emakume bakarra izango nintzenez, ez nuen parte hartu"

Hasieran, bisigua eta entsalada egiten genituen, ezer gehiago ez. Jendearen erantzuna nolakoa zen ikusi nahi genuen, eta erantzuna oso ona izan zen. Arrakasta handia lortu genuen. Horregatik, txuleta ere sartzea erabaki genuen. Hala ere, kanpotik etorritako jendeak janari gehiago eskatzen zuen: tortilak... Eskaera handia zegoela ikusita sukaldea jarri genuen. Halaxe, janaria eskaintzen hasi ginen; gizona parrilan aritzen zen, ni, berriz, sukaldean. Ondoren, gizona hil egin zen eta nik hasi behar izan nuen parrilan.

Beraz, gizona hil ondoren hasi zinen zu parrilan lanean.
Bai. Garai gogorrak izan ziren. Gizona hil zenean, bost urte zituen alaba txikiak eta zaharrenak, berriz, hamahiru. Gainera, jendearen aurrean aurpegia eman behar zen, eta ezin triste azaldu. Neure buruari galdetzen nion ea zer egin behar nuen; beste etxe batera joaten banintzen, besteentzat lan egin beharko nuen eta umeak ere besteei laga beharko nizkien. Azkenean, bertan lanean jarraitzea erabaki nuen. Langile bat hartu eta bion artean jarraitu genuen. Ni sukaldea eta parrila txandakatzen ibiltzen nintzen.

Gustuko al zenuen?
Betidanik egin izan dut lan ostalaritzan eta 14 urterekin, jada, esaten nuen beste edonora baino nahiago nuela tabernara joan. Niri barran egotea, jendearekin, gustatu egiten

zitzaidan. Gure amak ez zidan sinesten. Uste dut 17 urterekin hasi nintzela ostalaritzan eta gaur arte bertan jarraitu dut.

Gizona hil aurretik parrilan ibili al zinen lanean?
Aurretik parrilan ez nuen ezer egin. Hori bai, gizonari begira asko ikasi nuen. Parrilan hasi nintzenean, ordea, gauza asko ez nekizkien, adibidez, ezin izaten nituen txuletak ondo moztu. Gero, ikasi nuen, bai. Turistak etorri eta emakume bat parrilan lanean ikustean, harritu egiten ziren eta hala esaten zuten: "Emakume gaixoa, begira nola dagoen izerditan". Ni, ordea, azkenean ohitu egin nintzen. Ez da zaila, berehalaxe hartu nuen.

Zuen aurretik familian izan al zen parrilaririk?
Ez, gu izan ginen lehenegoak. Nire gizonak sukaldean ez ezik, parrilan ere bazekien, horregatik jarri zen horretan. Bestalde, parrilak erakargarritasun handia zuela ere ikusten zen.

Zure garaian parrilan aritzen zen emakumerik ezagutzen al duzu?
Orduan ez, ni lotsatu ere egiten nintzen. Behin Asteasu inguruan parrilarien txapelketa bat egin zuten eta joateko esan zidaten. Baina emakume bakarra ni izango nintzenez, ez nuen lehiaketan parte hartu.

Emakumeak lanbide honetan jarraipenik izan al du?
Ez, nik dakidala, behintzat, emakumerik ez dago. Denak gizonezkoak dira. Aurrekoan, telebistan ikusi nuen emakume bat parrilan lanean, baina hortik aurrera, ez dago emakumeen jarraipenik.

Atzera begiratuta, parrila aldatu al da zu ibiltzen zinenetik gaur egun arte?
Bai asko, baina onera. Jendeak orain gehiago eskatzen du, ikusten duen guztia gustatu egiten zaio eta jendea oso gustura irteten da. Gu gutxirekin hasi ginen, baina orain jendeak gehiago eskatzen du. Zenbat eta aukera zabalagoa eskaini, bezeroek gauza desberdinak jateko aukera gehiago izaten dute.

Parrila hedatuta al dago?
Bai, asko. Parrila dela-eta ezagutzen dute kanpotar askok Getaria; turista asko horregatik etortzen dira hona, jatekoagatik. Zarautzera joandako turistak ere jatera askotan gurera etortzen dira. Parrila oso ikusgarria eta polita da, eta jendea erakartzen du. Getariak ospe handia du horretan.

Oro har, lanbide honi jarraipenik ikusten al diozu?
Bai, hori galtzea zaila izango da. Bertan egiten dan arraina oso desberdina da, oso zapore desberdina du, eta jendeak hori nahi du. Guk gizona hil zenetik, bi urte egin genituen parrilarik gabe. Izan ere, nik minbizia izan nuen eta urte haietan parrila kentzea erabaki genuen. Hura kenduta, ordea, lanak asko egin zuen behera. Hori dela eta, gaixotasunari aurre egin bezain pronto, atzera berriz piztu genuen.

"Turistak emakume bat parrilan ikustean, 'emakume gaixoa, begira nola dagoen izerditan' esaten zuten"

Getariako Itsas Gastronomia elkartea egiten ari den lanaren inguruan zein iritzi duzu?
Balio handia ematen diot. Gainera, etorkizuna ere badu. Parrila bera bakarrik ez da ezer, beste gauza asko daude horren atzean. Getariak parrilarekin etorkizun handia duela iruditzen zait. Herri txikia izateko langile asko dago. Parrila Getariarentzat oso garrantzitsua da, egongo ez balitz, ez litzateke horrenbeste lan egingo. Getariak parrilarik gabe jai dauka.

Itziar Zigaren hitzaldia feminismoaz.

UEMAren zuzendaritza batzorde berria Iturzaeta Herri Eskolan egindako Batzar Nagusiaren ondoren.

Elikadura tailerra Maisorren.

Pintura Eguneko marrazkia Gudarien Enparantzako lurrean.

Kataluniako *procesa*ren epaiaren aurkako herritarren, Udalaren eta langileeen elkarretaratzeak.

Fabiola Belgikakoa. Errege ezkontza bat erakusketaren inaugurazioa.

Silvia Triguerosen *Tor* dokumentala eta hitzaldia.

Buruhandien tailerra Urritzaren eskutik.

Herriko surf eta bodyboard txapelketa.

elan euskadi
ONGD - GGKE

Oraindik alfabetatzeko



Munduko ia lurralde gehienak daude alfabetatuak, baina horien artean badaude diferentziak. Esaterako, Amerikako, Europako eta Asiako lurraldeetako biztanleriaren gehiengoak lortu du alfabetatzea, %90 baino gehiagok, baina munduko beste hainbat lurralde garrantzitsu daude oraindik biztanleriaren heren batek ez dakiena ez irakurtzen, ezta idazten ere. Adibidez, Afrikako, Ekialde Ertaineko eta Hego Asiako oso lurralde gutxi daude alfabetatze maila altua dutenak. Gainera, sexuen arteko desberdintasuna nabaria da, batez ere, Afganistanen eta Nigerian. Lurralde horietan gizonezkoen alfabetatze portzentajea hirukoiztu egiten da emakumezkoarenarekin alderatuz. Gure harridurarako, oraindik ere 21 lurralde daude alfabetatze tasa gutxiengoenarekin. / Irudia: Infobae.

Unescoren arabera, 750 milioi haur eta heldu daude idazten eta irakurtzen ez dakitenak, eta 250 milioi haurrek ez dute lortzen oinarrizko kalkuluak, eta irakurketa eta idazketa barneratzea. Horren ondorio zuzena da haur eta gazte horiek alboratuta geratzea beraien komunitatean eta, orokorrean, arlo sozialean.

Garapen Jasangarriko Agenda 2030ek alfabetatzea bizitza osoko ikas prozesuan ondo integratuta garatzea du helburu. Agenda NBEk onartu zuen 2015ean eta bere gain hartuko du asmo hori lurralde guztietan bermatzea, batik bat, haurrengan eta gazteengan ahalegin berezia eginez.

Jadanik alfabetatze digitala abian

Teknologia pixkanaka eta sotilki integratu da "gure" gizartean, hau da, gizarteratu egin da. Horrek, esate baterako, hezkuntza esparruan, geletako ikasprozesua aldatu eta azkartu egin du. Adituek diotenez, informazioaren teknologien erabilera egokiak **ikaslearen autonomia sendotu** egiten du, eta, aldi berean, **taldelana**, **motibazioa**, **kuriositatea** eta **sormena** sustatu.

Gaur egungo hezkuntza sistema berriena, baldin eta gaur bertan ez bada beste bat sortu, **ZTIM** (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) da. Jatorrizko siglak, nola ez, ingelesez dira, STEM (*Science, Technology, Engineering and Mathematics*), Estatu Batuetan sortua; gaztelaniaz, berriz, CTIM.

Eredu berri horrek metodologia berritzaileen eta alternatiboen ikaskuntza irakaskuntza prozesua eskaintzen du. Lurralde batzuetan, gaur egun, XXI. mendeko ezagutza kontsideratu da.

Zein da hau guztiaren **helburua**? Etorkizunera begira, orain umeak eta gaztetxoak diren gizakiak **oraindik ere existitzen ez diren lanpostuetarako trebatzea**. ZTIM hezkuntzaren promesa ez da soilik garapen ekonomikoa areagotzea, kolaborazioa eta talde-lana konpetentziak garatzea baizik. Hala ere, artearen eta diseinuaren diziplinen jarraitzaile direnek ere badute ZTIM hezkuntzan lekua, **ZTIAM** sortu baitzuten gerora. Ikasleen sormena sustatu asmoz **Artea** erantsi zioten metodologia berritzaile horri; horra hor arrazoia.

Proposamena

Zergatik ez lagundu alfabetatze digitalaren erabiltzaileek analfabetoei alfabetatzen? Astindu sormena eta eraiki dezagun bidezko etorkizuna.

Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

Zein artxibo zaindu eta zein ez

Artxibozainoi maiz galdetzen zaigu gure ogibidea zertan datzan. Aitortzen dut itaun hori erantzutea, askotan, zaila suertatzen zaigula. Erantzun motza, dokumentuak eta datuak kudeatzen ditugula esatea da. "Hau zertan hezurmamitzen den?", honetaz mintzatzeko jada hitz gehiago beharko ditugu.

Dokumentua funtzio bat edo batzuk betetzeko sortzen da, baina denbora igaro ahala, hasierako betekizun hauek edukitzeari uzten dio eta, era berean, beste batzuk sortzen zaizkio. Adibidez, "Ion, ogia erosi" idatzia duen paper bat igorleak hartzaileari eskaera luzatzeko sortua izan da. Baina ilunabarrean erosketa burutu ez bada, hasierako funtzio hori jada galdua du, baina gurasoei froga moduan balioko die hartzaileari errietan egiteko.

Bada, guk dokumentua bere balio aldaketa hauetan zehar kudeatzen dugu. Sailkatu eta ordenatu egiten dugu, bere sorrerako testuinguruan manten dadin eta horrela ahalik eta informazio gehien gorde dezan. Dokumentuak deskribatu egiten ditugu, edozein momentutan bertan dauden datuak berreskuratu beharra suertatzen bada, modu erraz batean aurkitu ahal izateko. Idatzien edukiak hedatu eta interesdunei irisgarritasuna erraztea ere gure eginbeharretako bat da. Beti ere, bertan ager daitezkeen beste norbanakoen datu pertsonalak babestuz. Laburki definitutako funtzio hauek betetzeko beharrezkoa da kontserbazioaren bidez dokumentuen integritate, autentifikazio eta fidagarritasuna mantentzea. Baina azken hau bezain garrantzitsua da dokumentazioa suntsitu edo xahutzea.



De orden de EE., dirijo a Ud. el presente habiéndole sabar que se ha recibido la siguiente carta-orden.

Audiencia de San Sebastián -Presidencia .Ilmo. Sr. :Tengo el honor de participar a V.S. que he recibido la comunicación siguiente :Audiencia Territorial de Pamplona -Presidencia ,por la Subsecretaría del Ministerio de Justicia ,se comunica a esta Presidencia lo que sigue :Excmo.Sr.: Teniendo en cuenta las numerosas consultas elevadas recientemente por diversos Organismos Judiciales sobre el régimen que ha de darse al papel procedente de los expurgos que se realicen en sus archivos ,esta Subsecretaría ,de conformidad con la propuesta elaborada por la Secretaría General Técnica del Departamento y de acuerdo con la Dirección General de Archivos y Bibliotecas del Ministerio de Educación Nacional ,ha considerado conveniente establecer los siguientes criterios de orientación general .I- El papel resultante de aquellos expurgos que en esta fecha se encontraren eliminados de acuerdo con las normas reguladoras vigentes sobre la materia será puesto a disposición del Servicio de Publicaciones de este Ministerio para su transformación en papel de edición con destino a la "Colección Legislativa de España" ,conforme previenen las referidas normas .II- En los sucesivos ,todos los Organismos Judiciales continuarán realizando ,como hasta ahora ,con la periodicidad que consideren necesaria ,un expurgo de los documentos que carezcan en sus archivos ,a fin de separar de aquellos que carezcan de valor para los mismos .La selección se hará con arreglo a los criterios establecidos en comunicaciones anteriores de esta Subsecretaría .III.- Una vez efectuado cada uno de los expurgos a que se refiere el párrafo anterior ,el Presidente del Tribunal o Juez correspondiente pondrá en conocimiento de la Secretaría General de Técnica de este Departamento quien a su vez ,lo comunicará a la Dirección General de Archivos y Bibliotecas para que

esta designe un técnico que ,trasladándose a la sede del Tribunal o Juzgado ,proceda a separar del papel expurgo ,los documentos que a su juicio ofrezcan interés histórico .Dichos documentos le serán entregados a la referida Dirección General ,en calidad de depósito ,mediantecacta extendida por el Secretario del Organismo Judicial correspondiente .IV.- El papel sobrante después de la selección a que se refiere el párrafo anterior será puesto a disposición del Servicio de Publicaciones de este Ministerio ,con objeto de que el mismo pueda hacerse cargo de dicho papel a los fines indicados en el párrafo I.- V- Se ruega a los Excmos.e Ilmos.Sres.Presidentes de la Audiencias Territoriales y Provinciales que adopten las medidas oportunas a fin de que estas normas sean comunicadas a todos los Juzgados de Primera Instancia e Instrucción Municipales Comarcales y de Paz del Territorio de su respectiva jurisdicción .Lo que digo a V.S. para su conocimiento y efectos oportunos .Dios guarde a V.S. muchos años .-Madrid 27 de agosto de 1.966 .El Subsecretario Alfredo Lopez -Fabricado ".- Lo que me complazco en trasladar a V.I. para su conocimiento y efectos ,sirviéndose dar conocimiento a y efectos ,sirviéndose dar conocimiento del anterior a todos los Juzgados de Primera Instancia e Instrucción Municipales - Comarcales y de Paz de esa Provincia ,a indicado efectos sirviéndose participar ,en su día el haberlo verificado .Dios guarde a V.S.I. muchos años .- Pamplona 16 de Septiembre de 1966 .
Firma y rubrica ilegibles .

Baieztapen honetan sakontzeko, Getariako Bake Epaitegira 1966. urtean Administrazio Zentraletik bidalitako agindu bat hartu nahiko nuke ardatz. Idatzi honetan justizia epaitegietako funtzionarioei argibideak ematen zaizkie bertan metatzen diren dokumentuak suntsitzeko orduan. Hau bi fasetan egitea erabakitzen da: lehenbizi, justiziako administrazioan dihardutenek, lehenengo balioa galdu duten dokumentazioa erretiratu behar dute. Bigarrenik, artxibo teknikariek, ikuspuntu patrimonial-historiko batetik, erretiratu den dokumentuetatik zer kontserbatu eta zer behinbetiko baztertu erabakiko dute. Gaur egun ere dokumentu produktoreen eta artxibozainen ikuspuntuak kontuan hartzen dira zer kontserbatu eta zer ez erabakitzeko. Biek ala biek, beti presente izanik kudeaketa eraginkor baterako ezinbestekoa dela hondatzea.

Hogeita zazpitik hamalaura

Gu Lehen Hezkuntzako 5A taldeko ikasleak gara eta gelaren banaketari buruz hitz egingo dugu. Pasa den urtean ikasle asko ginen gelan, 24 izaten hasi ginen eta 3 ikasle berri etorri zirenez, gela berean 27 pertsona bildu ginen.

2011n hasi ginen denok batera eskolan, Haur Hezkuntzako 2. mailatik 5.era bi gelatan banatuta geunden. LH 1ean gela bakarrean elkartu gintuzten eta LH 4ra arte, gela bakarrean egon ginen. Beraz ez da lehenengo aldia bi gelatan gaudena eta pixka bat ohituta gaude banatuak egotera.

Honek gauza positibo eta negatiboak ditu.

Adibidez, aipatzeko gauza negatiboen artean, gure lagun onenetako batzuei beste gelan tokatu izana eta bakoitzak nahi zuen lagunekin ez tokatu izana, beraz, denbora gutxiago daukagu elkarrekin egoteko.

Bestalde, gauza positiboen artean, pasa den urtean asko ginenez taldean, ia ez genuen parte hartzeko aukerarik; aurtengo gelan, aldiz, parte hartzeko aukera handiagoa dugu. Lana egiteko ere hobeto moldatzen gara eta isiltasuna errazago lortzen dugu nahiz eta hasieran pixka bat kostatu.

Leku gehiago daukagu gelan eta ez diogu elkarri molestatzen, lehengo urtean taldeak oso gertu zeuden bat bestearengandik eta elkar jotzen genuen. Apalategira joateko ere altxatzen garenean, errazago hartzen ditugu liburuak eta materiala.

Honetaz aparte, askoz hobeto pasatzen dugu gelan, gutxiago garenez, konfiantza handiagoa daukagu gure artean.

Soinketa orduko *txarlan* esertzeko leku gehiago dago, soberan geratzen dira eserlekuak.

Gainera, andereñoa ez da gure izenekin nahasten, lehengo urtean bezala.

Lehendabizi ez zitzaigun ideia ona iruditzen banatzea, orain ohitzeko prozesuan gaude baina egia esan oso lasai sentitzen gara bi gelatan. Aurten egokitu zaigun taldearekin pozik gaude.

Jolas-orduan gure gelakoekin gehiago ibiltzen bagara ere, berdin-berdin jarraitzen dugu beste gelakoen lagunak izaten. Horretaz gain, eskolaz kanpoko denbora librean eta asteburuetan ere beraiekin jolasten dugu.

GURE GELA *EKIPAZOA* DA, AUPA LH 5A!!!!!!!!

udalsarea21

Zabor bilketa hondartzetan

Ezinbestekoa da gure hondartzen kudeaketa jasangarria egiten jarraitzea itsasoetako hondakinen eta plastikoen arazoari aurre egiteko, hau baita Gipuzkoak egun duen ingurumen arazorik larrienetakoa.

Aurtengo udan zabor gutxiago sortu da Gipuzkoako hondartzetan, zehazki %34 gutxiago 2018aren aldean. Sentsibilizazio kanpainek eta herritarren konpromisoak hobekuntza hau posible egin dute.

Jakitera eman dira 2019ko hondartza denboraldiaren itxieraren datuak. Ingurumeneko Departamentuak egindako ekimenak zeintzuk izan diren zehaztu du eta ezagutzera eman ditu Gipuzkoako hondartzetan hondakinen sorrerari buruzko datuak, lurraldeko hondartza bakoitzaren erabiltzaileen zenbatekoa, gauzatutako salbatze-lan kopurua, jazoerak, eta aurtengo udaran egindako sentsibilizazio kanpainaren emaitzak eta eraginari buruzko datuak.

2019ko urtarrilaren 1etik irailaren 15era bitartean 491.529 kilo hondakin bildu dira Gipuzkoako hondartzetan, aurreko urtean baino %29 gutxiago. Getariako hondartzetan —Malkorbe eta Gaztetape)—nahiko kopuru txikia jaso da: bietan 35.787 kilo hondakin, aurreko urtean jasotakoa baino gutxiago.

Udako denboraldian —ekainaren 1etik irailaren 15era—, berriz, murrizketa are handiagoa izan da. 199.369 kilo hondakin jaso da, 2018. urtean baino %34 gutxiago; izan ere, 303.716 tona bildu ziren lehengo urtean. Getariako hondartzetan 21.007 kilo hondakin jaso dira. Adierazi behar da epe muga honetan, eta iazkoarekin konparatuta, igo egin dela jasotako kilo kopurua, %14,19 hain zuzen ere.

Getariako hondartzetan izan ezik, Gipuzkoako hondartza guztietan gutxitu da hondakinen sorrera, 2018an nabarmendu zen beheranzko joerari eutsiz. Datuak 2017koekin alderatzen baditugu, gutxitzea %52koa izan da; izan ere, 2017ko hondartzen denboraldian 422.012 kilo hondakin bildu ziren.

Bestalde, irisgarritasuna hobetzeko, hondartzetara iristeko sarrerak berrituko dira, Gipuzkoako Kosta Zerbitzu Probintzialarekin eta udal ezberdinekin adostuta. Horrela, Gaztetape hondartzako arrapala egokitzeko lanak egin dira urrian.

Informazio gehiago:

Tel. 943 896 024
www.gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena
maizpuru@getaria.eus

GOIATZ LAZKANO

Mahats eta onddo risottoa

Udazkenak ematen dizkigun jakiekin prestatuko dugu jarraian azalduko dizuedan errezeta. Osagai nagusiak mahatsa, arroza eta perretxikoak dira.

Mahatsari dagokionez, energia eta zuntzaren iturri aberatsa da. Bere mineralen artean burdina eta potasioa dira nagusi eta nahiz esan azukre asko dutela, indize gluzemikoa ez du oso altua. Mahatsak dituen mineral alkalinoei esker, gibela estimulatzen da azidotasuna erregulatu ahal izateko. Horrela, bere kaloria-ekarpen gaitasun depuratiboak konpentsatzen du, giltzurrunak ere estimulatuz eta behar ez duguna kanporatzen lagunduz —baita laxante gisa ere—. Bukatzeko aipatu beharra dago antioxidatzaile potentea dela.

Onddoak, udazkeneko "lore" preziatu eta goxoenak. Honakoak dira dituzten ezaugarri nutrizional esanguratsuenak: oso kaloria gutxi eta proteina iturri aberatsa. Dituzten proteinen konposizioa haragiarenera gehien hurbiltzen dena da. Gainera, kaloria oso gutxi eta zuntz asko ditu, dieta osasungarri batentzat oso egokiak.

Arroza denok ezagutzen dugun zereala da, eskuragarri dugu eta mila modutan presta dezakegu. Bere ezaugarri guztietaz baliatu ahal izateko, integrala kontsumituz gero, askoz onura gehiago lor ditzakegu (zuntza, energia, bitaminak, mineralak...). Arroza zereal beroen taldean kokatzen da, gure gorputzeko tenperatura igoarazten baitu.

Mahats eta onddo risottoa

Osagaiak:

- Tipula erdi bat.
- Onddoak —perretxikoak ere erabil ditzakegu—.
- Ardo zuri kopa bat.
- Arroza (250g).
- Mahatsa (15-20 ale).
- Intxaurrak (3-4).
- Parmesano gazta (koilarakada bat).
- Barazki salda (1 litro).
- Gatza eta olioa edo gurina.

Prozedura:

- Lapiko batean olio edo gurin pixka bat ipini berotzen eta tipula gehitu. Kolore zuria galtzen duenean onddoak bota eta nahastu.

- Arroza bota zaporeak nahasteko eta jarraian ardo txuria eta gatza. Utzi horrela ardo txuria lurrundu arte. Baporatzen denetik aurrera, salda gehitzen hasiko gara; edalontzi bat lehenengo, nahasteari utzi gabe. Hori xurgatzen duenean, beste edalontzi bat... horrela arrozak xurgatzeari utzi arte.

- Arroza saldaz asetzen denean, beste 15 bat minutuz bueltak eman eta mahatsa (ondo garbituta) eta gazta gehituko dizkiogu, krematsu gelditu arte.

- Jateko orduan, gazta gehiago gehitu diezaiokegu eta intxaurrak zurituta ipini, apaintzeko eta beste testura bat gehitzeko.

On egin!

Oharra: errezeta hau urratsez urrats ikus dezakezue, bideoan, www.artzape.eus webgunean.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
(Maxi Eroski ondoan)
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

TXUKUN
LORAZANTZA, S.L.
Lorezaintza, mendiko lanak, indusketak, itxiturak...

660 332 756 - 679 428851
txukunlorazantza@hotmail.com

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

EDURNE IRIGOIEN

PLIST & PLAST

ANDRES ALBERDI

Patrika

Gaur eguneko patrika(k).

Antzinako patrikera, gerrikoan zintzilik eramaten zena.

Ez da Getariako hitza bakarrik, inguruko herrietan ere erabiltzen baita. *Euskaltzaindiaren Hiztegia*k dio Euskal Herriko Hegoaldekoa dela ***patrika***. Eta *patrika* ez ezik, baita haren aldaera diren *patrikara*, *patrikada*, *patrikera*, *partika*, *partikara*, *faltrikera*, etab. ere. Sinonimorik ezagunenak eta hedatuenak, zalantzarik gabe, ***sakela*** eta ***poltsiko*** dira. Esanahia: jantziei barrualdean edo kanpoaldean josten zaien poltsa modukoa, eskuarki tamaina txikikoa.

Getarian *patrika* hitza erabiltzen dugu, arestian esan bezala, baina ez dugu beti denok berdin-berdin erabiltzen. Esate baterako, adinean aurrera doazenek "patri**kian** eraman" esaten dute; gazteen ahoan, "patri**kan** eraman" ere entzuten da.

Horretaz dakitenen iritziz, *patrika* hitza (eta haren aldaerak: *patrikera*, *faltrikera*...) arabieratik hartua da maileguz; zehazki mozarabieratik: *ḥaṭikáyra*tik, hain juxtu. Ez da gertaera harrigarria, euskarak arabieratik hartutako beste hitz batzuk ere baditu eta: *atorra*, *izara*, *gutun/kutun*, *azoka*, *alkandora*, *alkate*...

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com*era ezagutzen dituzun hitzak.

2019ko AZAROA

Agenda www.artzape.eus webgunean eguneratzen dugu. Adi egon!

1 Ostirala
Sardina jana solidarioa
Ordua: *12:30-15:30*
Lekua: *Katrapuna kantina*
Bildutako dirua Nepaldala elkartearentzat izango da. Nepalgo nekazaritza eremuetako nesken hezkuntzara bideratzen ditu baliabideak Nepaldala Gobernuz Kanpoko Erakundeak.

6 Asteazkena
"Kontrako eztarritik. Emakume bertsolarien testigantzak" liburuaren aurkezpena
Ordua: *19:00*
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *Getariako Eskubide Sozialen Karta*
Uxue Alberdi egilea bertan egongo da, baita bertsolariren bat ere.

7 Osteguna
Dokumentala: *Lov. Dantzan jo ta ke. Oinak lehertu nahian*
Lekua: *gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

San Martin jaiak Askizun

8 Ostirala
- *21:30ean, mus txapelketa.*

9 Larunbata
- *16:30ean, umen jolasak. Ondoren, txokolatada.*
- *21:00etan, auzo afaria, Izer eta Alabier trikitilariekin. Izen-ematea azaroaren 6a baino lehen 943 140 043 zenbakira deituta.*

10 Igandea
- *11:00etan, meza*
- *Ondoren, herri kirol jaialdia: Zelai II eta Karmele Gisasola Zelai I harri jasotzen eta Tubi Iparraldeko jokoetan.*
- *Gero, Lopene ganadutegiko zezen txiki eta poniak. Jone Uria eta Irati Aranguren trikitilariak izango dira.*

11 Astelehena
- *11:00etan, meza nagusia.*
- *Ondoren, txakolin dastaketa.*
- *Gauean, erromeria Laja eta Narbaizarekin.*

10 Igandea
Behobia-Donostiara joateko autobusa
Ordua: *08:45*
Lekua: *autobus geltokia*
Antolatzailea: *Sahatsaga udal kiroldegia*
Izena azaroaren 7a baino lehen eman behar da kiroldegian (943 140 432 edo kirolgune@hotmail.com). 20 pertsonako taldea osatu behar da autobusa Getariatik ateratzeko.

15 Ostirala
Kontzertuak
Lekua: *gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

16 Larunbata
Eskulanak
Ordua: *12:00*
Lekua: *Berdura plaza*
Antolatzailea: *Urritza Aisialdi Taldea*

17 Igandea
Mendi irteera
Diana
Ordua: *09:30*
Azaroa Musikaz Blai egitasmoaren baitan.

Getariako Musika Bandaren kontzertua
Ordua: *12:30*
Lekua: *Salbatore Deunaren parrokia*
Eneritz Jauregik zuzenduko du Azaroa Musikaz Blai egitasmoaren baitako emanaldia.

18 Astelehena
Xixili Eguneko ospakizuna
- *17:30ean, batukadarekin kalejira*
- *18:00etan, kalejiraren amaiera eta txokolatada plazan*

Antolatzailea: *Juan Sebastian Musika Eskola*
Azaroa Musikaz Blai egitasmoaren baitan.

22 Ostirala
Xixili Eguna: kalejira Getariako Musika Bandarekin
Ordua: *19:30*
Azaroa Musikaz Blai egitasmoaren baitan.

24 Igandea
Getariako Abesbatzaren kontzertua
Ordua: *12:30*
Lekua: *Salbatore Deunaren parrokia*
Ruben Mejutok zuzenduko du azaroa Musikaz Blai egitasmoaren baitan.

26 Asteartea
Katukale irakurle taldearen saioa
Ordua: *18:30*
Lekua: *liburutegia*
Fleur Jaeggiren "Proleterka" liburua aztertuko dute.

28 Osteguna
Kontzertuak: Physique
Lekua: *gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

30 Larunbata
Alkate Txiki Eguna
Antolatzailea: *Getariako Guraso Elkartea*

Bertso afaria
Lekua: *gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada*

Cristobal Balenciaga Museoa

Modelatze tekniketara hurbilketa
Azaroaren 1etik 3ra, 10:00etatik 20:00etara. Ereduak sortzeko eta patroiak egiteko "moulage" tekniketara hurbiltzeko aukera eskainiko du masterclassaren eduki teorikoak, eta eduki horren garapen praktikoak, berriz, prozesu horien metodo espezifikoak gauzatzeko helburua edukiko du. Miguel Elola Recondo eta Miguel Elola Zaragueta aita-semeek eskainiko dute.

Txapela buruan eta... ibili museoan!
Azaroaren 17an, 10:30etik 13:30era.
Familientzako ekintza honetan fieltroarekin txapelak egingo dituzte. Beharrezkoa da izen-ematea.

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	Zenbatekoa
4,3 x 4	*12 euro*
9 x 4	*24 euro*
13,6 x 4	*36 euro*
9 x 8	*48 euro*
13,6 x 8	*72 euro*
orri erdia	*96 euro*

Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.

www.artzape.eus

egin bazkide

Txeruko postontzian // info@artzape.eus

Izen-abizenak:	
Helbidea-Herria:	
Telefonoa:	
Helbide elektronikoa:	
Kontu zenbakia:	
Banketxea:	

Urtean 25€ - Getariatik kanpo bidaltzea 30€

SIZ
Servicios Informáticos Zarautz

Ekipo informatikoen salmenta

Mantenua

Informatika akademia

Webguneen diseinua

Urdaneta 2, behea · 20800 Zarautz
Tel. 943 894 014 · fax 943 133 410
www.zarautz.com · siz@zarautz.com